



## Irureta eta Uranga

Aktore ogibidearen  
miseriak eta pozak  
azaldu dituzte ◻ 38-39

# PSOErekin aurrekontuak adosteko prest agertu da Sanz, Raxoirekin bildu ostean

Nafarroaren interesen alde jokatu duela berretsi du UPNko buruzagiak PPko zuzendaritza osoaren aurrean, eta Zapaterorekin akordioa egitea beharrezkoa dela

Iruñeko bileraren ondoren, UPN eta PPren arteko akordioa «osasuntsu» dagoela adierazi du Nafarroako presidentek; Raxoik, berriz, esan du ondo funtzionatzen duela ◻ 8



JAVIER REGUERO / EFE

→ **Urrezko domina, eta munduko errekorra.** Richard Oribe Donostiako igerilariak urrezko domina irabazi zuen atzo estilo libreko 200 metroko proban, Pekingo Paralinpiar Jokoetan. Hori gutxi balitz bezala, munduko marka ere ondu zuen Oribe (2.55,81). Nagusitasun handiarekin irabazi zuen, eta jokoetan bigarren domina eskuratu zuen. Euskal kirolariek hiru domina irabazi dituzte dagoeneko Pekinen. ◻ 28

## Abian da LHC azeleragailua, inoizko zientzia esperimendu handiena

Lehen partikula azpiatomikoak sartuko dituzte gaur tramankuluan, elkarren arteko talkatik zer ateratzen den aztertzeko ◻ 2-3

## Joseba Egibar EAJko GBBko lehendakaria

«Mugarria izan zen Lizarra-Garazi. Orduetik gauzak asko aldatu dira»

Bake nahia eta erabakitzeko gogoia hedatu zituen itunak gizartean, Egibarren irudiko

Elkarrizketa ◻ 7

## «Uniformetze ahalegina» leporatu diote historialariek Espainiari

Euskal Herriko, Galiziako eta Herrialde Katalanetako hainbat historialarik agiria izenpetu, eta Galeuscaren espiritua berreskuratu nahi dutela adierazi dute ◻ 14



Irailaren 12tik aurrera, gure historian azarna nabariak utziko dituen gertakaria ezagutuko duzu.